



**Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 3koa. Horren bidez genero indarkeriaren biktima den emakume bat etxebizitzaz aldatzeko premiazko beharrari buruzko kexan esku-hartzea amaitzen da.**

### Aurrekariak

1. 2009ko uztailean erakunde honetan emakume batek egin zuen kexa bat jaso genuen. Emakumea arrisku egoera objektiboko genero indarkeriaren biktima zen eta bere etxebizitzatik alde egin ahal izateko, Lasarte-Oriako Udalaren txosten bermearekin, behin eta berriro beste etxebizitza bat eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari. Kexaren bidez gure esku-hartzea eskatu zuen sailaren erantzuna jasotzeko.
2. Kexa horren bidez helarazi zizkigun gertakariak hauek dira: Babes ofizialeko etxebizitzen prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 6. artikulua betez, baita “Bizigune Etxebizitza Hutsen Programako” baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko 2003ko apirilaren 23ko Aginduko 8. artikulua eta, etxebizitza eta lurzoru arloan, babes ofizialeko etxebizitzei eta finantza neurriei buruzko 315/2002 Dekretuko bigarren xedapen gehigarria ere (xedapen hori indarrean dagoen martxoaren 4ko 39/1008 Dekretuko 12.3 artikuluari dagokio), Lasarte-Oriako Udaleko alkateak beretzat, 2009ko apirilaren 6an, lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailaren aurrean eskaera egin zuen. Horren bidez, premia bereziko egoeratik alokairuan etxebizitza babestuaren salbuespenezko zuzeneko esleipena eskatu zuen. Ondoren, oraindik eskaera horren erantzunik jaso gabe eta emakume horren arrisku egoera berria ikusirik – alegia, erasotzailea espetxetik ateratzea eta espetxe psikiatrikoan zigorra betetzeko zain egotea-, Lasarte-Oriako alkateak berriz ere, 2009ko maiatzaren 28an, Etxebizitza Sailera jo zuen, gizarte zerbitzuek biktimaren arrisku handia baloratu
3. ondoren, interesdunak etxebizitzaz aldatzeko zuen premia azpimarratzeko. Lasarte-Oriako Udalaren gizarte zerbitzuek egindako 2008ko otsailaren 24ko txostenean ikusi genuen bezala, interesdunaren jabetzako etxebizitza eta erasotzailearen ohiko etxebizitza eraikin berean zeuden. Horrenbestez, guztiz ezinbestekoa eta premiazkoa zen etxebizitza hori utzi eta beste batera joatea, urruntzeko agindua betetzea bermatzeko (erasotzaileak aurretik jada urratu bazuen ere) Eusko Jaurlaritzak ezarritakoaren arabera. Etxebizitza Sailak eskaera horri inolako erantzunik eman ez zionez, erreklamatzailleak Arartekora jo zuen babes eske.



4. Azaldu zigun gaia larria zela ikusirik, zegokion administrazioari premiazko informazio eskaera egitea erabaki genuen. Horrez gain, saileko arduradunekin telefonoz harremanetan jarri ginen egindako eskaeraren erantzuna lortzeko behar ziren izapideak ahalik eta gehien arintzeko. Gure informazio eskaeran adierazi genuen pertsona horren beharra eta arrisku egoera objektiboa zela eta - Lasarte-Oriako udaleko gizarte zerbitzuek hala baloratuta- bereziki premiazkozat jotzen genuela sail horrek gaiari buruzko erabaki bat berehala hartzea eta interesdunari zein Lasarte-Oriako Udalari lehenbailehen ebazpen hori jakinaraztea. Eta horrez gain, sailari gaiari buruz duen iritzia 10 eguneko epean jakinarazteko eskatu genion.
5. Informazio eskaera hori egin genuenetik bi hilabete baino gehiago igaro da eta ez dugu sailaren erantzunik jaso. 2009ko irailaren 30ean errekerimendu bat bidali genion gure informazio eskaera erantzun zezaten eskatuz.
6. Azkenik, 2009ko urriaren 6an, sailaren urriaren 5eko erantzuna jaso genuen. Bertan adierazi ziguten kexagilearen espedientea behar bezala kudeatu ondoren, kexagileari zuzenean etxebizitza bat esleitu zitzaioela, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko sailburuaren irailaren 10eko aginduz.

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, aipatu behar dugu esku artean dugun gaia behar bezala amaitu dela burutu diren jarduera egokiei esker. Jarduera horiek direla eta, etxebizitza bat zuzenean esleitu baitzitzaion erreklamatzailari, 2009ko irailaren 10eko sailburuaren aginduz. Hori pozgarria da erakunde honentzat, gure ustez emakume horrek zeukan arrisku egoera objektiboak administrazioak konponbide eraginkor batekin erantzun zezala eskatzen baitzuen. Eta azkenean eman den konponbidea guztiz bat dator kasu hori egiaztatu ahal izan duten erakundeek baloratutakoarekin. Hala ere, ezin dugu gai hau bazter utzi, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak espediente hori kudeatzeko izan duen erari buruz gogoeta batzuk egin gabe.
2. Kasu honi dagokionez, argi eta garbi zegoen gaiak premiazko jarduera behar zuela eta jada 2009ko apirilean eta maiatzean halaxe egiaztatu zuten Lasarte-Oriako Udalak sail horri bidalitako txostenek (gizarte zerbitzukoek eta alkatearenak). Erakunde honek berriro ere txosten horien berri eman zuen 2009ko uztailaren 17ko informazio eskaeran. Gaia larria zenez, genero indarkeriari buruzkoa baitzen, orduan sail horri idazteaz gain, telefonoz bertako arduradunekin harremanetan jartzea erabaki genuen kexagileari etxebizitza bat esleitzea ahalbidetuko zuten kudeaketak ahalik eta gehien arintzeko. Hori horrela izan arren, ez genuen sailaren erantzunik jaso eta, hortaz, 2009ko irailaren 30ean errekerimendu bat egin behar izan genuen, ez genekielako ordurako gaia jada konponduta zegoenik. Gure ustez, sail horrek gaiari azkenean eman dion konponbidea egokia izatea alde batera utzita, horrek espediente honen izapidean beharrezkoa zen eginbiderik egon ez izana





azaleratzen du. Bi mailatan du eragina: Arartekoarekin, berak eskatuta bezala, elkarlanean aritzeko denbora eta modua, eta gaiaren ezaugarriak direla-eta premia izapidetu behar zen espedienteari konponbidea ematen gehiegi luzatu izana.

3. Alde batetik, hortaz, erakunde honi erantzutekoan egon den eginbide falta aipatu behar dugu. Izan ere, horregatik ez genekien 2009ko irailaren 10ean interesdunari zuzenean etxebizitza bat esleitu zitzaionik. 2009ko irailaren 30ean errekerimendu bat bidali genion gure 2009ko uztailearen 17ko informazio eskaerari 10 eguneko epean erantzun ziezaion eskatzeko -epea erruz gainditu zen-. Hori egin ondoren soilik jaso genuen erantzuna, 2009ko urriaren 6an. Alde horretatik, Arartekoaren erakundea sortzen eta arautzen duen Eusko Legebiltzarreko 3/1985 Legeko 23. eta 26. artikuluetan xedatutakoa gogoratu nahi dugu:

**23. artikulua.- *Tratu berdintasuna***

*9.1 artikuluan aipatzen diren erakundeetako organoek eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo azalpen guztiak aurkezteko betebeharra dute, lehentasuna emanik eta al bait lasterren. (Guk azpimarratu dugu)*

**26. artikulua - *Epeak***

*Informazio eskaerei, espedienteen bidalketei edo bestelako agirien bidalketei dagokienez, Arartekoak epe bat jarriko du eskatutakoa betetzeko.*

Agindu horiek euskal herri administrazio guztientzat Arartekoarekin modu eta denbora egokian elkarlanean aritzeko betebeharra dakarte. Hori ez betetzeak erakunde honi legez dagokion lana oztopatuko luke eta Arartekoak, erakundea den aldetik, bere funtzioak modu eraginkorrean burutu ditzan eragotziko luke.

4. Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak zuzenean egindako eskaerari erantzuteko administrazio horrek izan duen atzerapena aipatu nahi dugu, kasu honetan garrantzi handiagoa baitu. Izan ere, Lasarte-Oriako Udalak sobera egiaztatu zuen kasua larria zela eta sail horren erantzuna jasotzea premiazkoa zela. Bost hilabete igaro ziren Lasarte-Oriako alkateak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari lehenengo eskaera egin zionetik -2009ko apirilaren 6an- erreklamatzailari etxebizitza esleitzeko sailburuaren agindua eman zen arte -2009ko irailaren 10ean-. Bost hilabete horietatik 4 hilabetetan zehar (maiatzean erasotzailea espetxetik atera zenetik) interesdunak arrisku egoera objektiboa zuen eta behar bezala egiaztatua zegoen (erasotzailearen higiezin berean bizi zelako), baina administrazioak ez zion erantzunik eman.
5. Esku artean dugun espedientea izapidetzeko behar den denborak hartzen duen neurria bereziki azpimarratu nahi dugu. Herri administrazioak administrazio espedienteak izapidetzeko oro har eginbideak betetzeko duen betebeharra ezinbestekoa bihurtzen da pertsonen bizitza objektiboki arriskuan jartzen duten egoerak bideratzeari dagokionez, esku artean dugun kasuan eta genero indarkeriarekin lotura duten kasu batzuetan gertatzen den moduan.





Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko (aurrerantzean APL) hainbat agindu administrazio espedientearen eginbideak izapidetzeari buruzkoak dira eta, kasu honetan bezala, atzerapenik gerta ez dadin administrazioak bitarteko egokiak izateko oinarri juridikoa dira. Hortaz, APLko izapideen erantzukizunari buruzko 41. artikulua interesdunek beren eskubideez guztiz baliatzea eragozten, zailtzen edo atzeratzen duten oztopoak kentzeko neurri egokiak hartzeko beharri buruzkoa eta interesdunen legezko interesak errespetatzeari buruzkoa da. APLko 50. artikulua, bestalde, interes publikoko arrazoiak direla-eta, espedientea al bait lasterren izapidetu dadin erabakitzeko aukera ezartzen du. Eta azkenik, APLko 74 eta 75. artikuluek diote prozedura bizkortasun irizpideen arabera dela eta printzipio hori betetzeko mekanismoak ezartzen dituzte.

Erakunde honek gai honi buruz duen iritzia hainbatetan eman du; esaterako 2009ko martxoaren 25eko eta maiatzaren 20ko ebazpenetan:

*“Espainiako Konstituzioak berak –103.1 eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua biztanleei ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute(...).*

*“Alderantziz, administrazio txartzat jo behar da artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea. Betebehara hori honako bidez zehazten da: aurkeztutako erreklamazioei arrazoizko epe batean erantzuna emateko (... ..) betebeharra.*

Ezin dugu ahaztu erreklamazio honen testuingurua ez dela ohikoa, izan ere, erreklamazioa genero indarkeriaren biktimatik da eta hainbat inguruabar direla medio (erasotzailea espetxetik ateratzea buru osasuneko zentro batera eramateko, erreklamazioaren etxebizitza eta erasotzailearen amarena - erasotzailea bertan bizi da- higiezin berean egotea) arrisku egoera objektiboan dago; hori konpontzeko modu bakarra erreklamazioa bere etxebizitzatik beste batera eramatea da. Horretarako, administrazioak arazoa konpondu ahal izateko bitarteko eta mekanismo juridikoak dauzka; azkenean arazoa konpondu da. Gauza da administrazioaren kudeaketak konponbide egokia eman zuen arte igarotako denbora eragile erabakigarri bat izan zitekeela. Aurretik aipatu dugun epean beste erasoren bat gertatu izan balitz, erantzukizuna, ezinbestean, esku artean dugun gaian, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarena izango zatekeen. Lasarte-Oriako Udalak ezaugarri horiek dituen eskaera bat izapidetzeko 2006ko urriaren 4ko Aginduan eta martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 12.3 artikuluan ezarritako baldintzak bete zituen eta, hortaz, udal horrek hasitako prozedura bukatzea Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari soilik zegokion. Horregatik guztiagatik, ondoriozta dezakegu, 2009ko apiriletik Eusko Jaurlaritzak administrazio espedientea bere esku zeukan, izapidetzeko epearen arrazoizkotasuna deskribatutako gertaeren arabera aztertu behar zitekeela. Horrek, izapidea eta prozeduraren ebazpena azkarrago egitea ekarriko baitzukeen.





6. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren 2006ko urriaren 4ko agindua, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeentzat etxebizitzaren arloan ekintza positiboko neurriei buruzkoa, emakumeei laguntzeko neurriak sortzeko beharrak bultzatutako araua da eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak jasotzen du. Agindu horrek, beste neurrien artean, etxebizitzaren zuzeneko esleipena jasotzen du, etxebizitza bat esleitzeko prozedura orokorretik kanpo utzita. Bestalde, babes ofizialeko araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 12.3 artikulua ezartzen du, zenbait baldintzekin -horien artean erakunde eskudun batek etxebizitza baten beharra egiaztatzea- xedapen berean arautzen den etxebizitza esleitzeko ohiko prozeduratik kanpo utzi ahal izango direla babes berezia behar duten taldeak, horien artean genero indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Esku artean dugun gaian egin diren jarduerak arau esparru horretan sartzen dira. Arau ezarpen horiek, salbuespenekotzat jotzen diren egoerei salbuespeneko erantzuna eman nahi diete. Hala ere, aipatutako 39/2008 Dekretuko 12.3 artikulua beste talde batzuk ere aipatzen ditu. Egia esan, genero indarkeriaren biktima diren emakume taldeak, etxebizitzaren gaineko xedapen bereziaz baliatzen diren unean, arrisku egoera bat sor daiteke; baina egoera hori behar bezala objektibatu badago, erakunde honen ustez, horrelako espediente bat izapidetzeaz arduratzen diren administrazioak (dagokion udala eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila) espediente horiei bultzada bat ematera eramango dituzte, premiazko izapideen bidez. Premiazko izapide hori legezko egiten duten interes publikoko arazoak, APLren 50. artikuluari dagokionez, begi bistakoak dira, arriskuan dagoena pertsonen osotasun fisikoa denean.

Horregatik guztiagatik, azaldutako aurrekariak eta gogoetak aztertu ondoren, kontu honetan gure esku-hartzea amaitzea erabaki dugu. Hala ere, honako ondorio hauek atera ditugu:

### Ondorioak

1. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak behar bezala ebatzi du, 2009ko irailaren 10eko sailburuaren aginduz burututako etxebizitzaren zuzeneko esleipenaren bidez, genero indarkeriaren biktima den emakume batek Lasarte-Oriako Udalaren bermearekin egindako etxebizitza eskaera. Gai honi azkenik eman zaion konponbidea egokia izatea pozgarria da Arartekoaren erakundearentzat.
2. Hala ere, eskaera lehenengoz egin zenetik ebatzi den arte igarotako denbora (5 hilabete), erakunde honen ustez arrazoizkotik gain dago. Izan ere, emakumea eskaera egin zuen unean bizi zen etxebizitzatik beste batera joatea ezinezkoa zen bitartean, genero indarkeriaren biktima zen emakume hori, kasu honetan, behar bezala egiaztatutako arrisku egoera objektiboan zegoen. Horregatik, gure



ustez, aipatutako etxebizitza eskaera dela-eta, sail horrek izapidetutako espedientea premiazkoa izan behar zen eta askoz denbora laburragoan ebatzi behar zen.

3. Arartekoaren ustez, genero indarkeria jasan duten emakumeei dagokien espediente oro, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailburuak emandako 2006ko urriaren 4ko aginduko 4.2 eta 6. artikuluen esparruan, alegia, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeentzat etxebizitzaren arloan ekintza positiboko neurriei buruzko aginduan, eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza neurriei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 39/2008 Dekretuko 12.3 artikulua esparruan dauden espedienteak, etorkizunean, interes publikoko arrazoiengatik, premiazko izaeraz izapidetu beharko lirateke, betiere, eskaera egin duen emakumea arrisku objektiboko egoeran dagoenean eta egoera hori behar bezala egiaztatzen denean.

